

pijama *Festa*

Delaney ren txakurtxoa

Jen Jones

desclée



Maren Melissa Taylor

Maren nortasun handiko neska dela esan daiteke: lotsagabe samarra, energiaz betea, eta beti du prest erantzun azkar bat. Egunen batean aktore edo umorista izan nahi du eta Hollywoodera joan nahi du izar bihurtzeko. Modak ez du gehiegi kezkatzen; are gehiago, Marenen ohiko uniformeak honakoa da: bakero pare bat, kirol-kamiseta bat eta txanoa duen kirol-jertse bat. Alaba bakarra denez, bere lagunak ahizpa bezala adoptatu ditu.



Willow Marie Keys

Pazientzia handikoa eta atsegina, Willow konfiantzazko lagun bikaina da. (Galdetu bere neba bikiari!). Gainera, sormen handiko artista bat da. Argi dago egun batean denda bat edukiko duela eta egiten duen guztia salduko duela han. Familia hippy samarra duenez, Willowek estilo aski bohemioa du, baina guztiz bat dator barruan duen ume alaiarekin.



Delaney Ann Brand

Delaney azkarra eta gogotsua da... eta beti dago saltsaren batean sartuta! Animalien babeslekuan boluntario-lanetan edo Mareni etxeko lanekin laguntzen ari denean ere, beti konta dezakezu Delaneyrekin. Normalean, Delaney mototsarekin eta bakeroekin aurkituko duzu (eta, jakina, bere lagun min bakoitza sinbolizatzen duten zintzilikarioak dituen eskumuturreko bereziarekin). Eredu ezin hobea da bere ahizpa gaztearentzat.



Ashley Francesca Maggio

Ashley familia italiar alai bateko kiderik txikiena da. Bere neba eta ahizpa nagusiek (Josie, Roman, Gino eta Matt) gauza mordoa irakatsi diote, besteak beste berarena bezalako familia handi batean arreta nola erakartzen den, eta Ashley benetan trebea da horretan. Blogari modazale honek estilo eta joera berri guztien berri du eta mundu guztiari kontatzen dio bere blogean (Magstar izenekoa). Ashley alaia eta bihurria da, eta oso gutxitan ikus daiteke bere "poltsako txakurtxoa" gabe, Coco.



Lehenengo atala

Asteko edozein egunetan egoten naiz eroatera joateko prest. Beno, eta zer neska ez? Baina ez dago asteburuak merkataritza-gunean igarotzea baino gauza hoberik. Patioan zuzeneko musika-ikuskizunak izaten dira, beherapen onak aurki daitezke, eta jende piloa ibiltzen da batera eta bestera (horregatik, une ezin hobea da jendeari begira aritzeko). Nire lagunik minenek, Ashleyk, Marenek eta Willowek, beti izaten dute jendeari begira aritzen garen uneei buruzko pasadizo mordoa kontatzeko.



Marenek, Ashleyk, Willowek eta laurok ostiral gauero txandaka egiten ditugu pijama festak. Egia esan, tradizioa ustekabeen hasi zen, Mareni eta bioi esker.

Kontua da Marenek amak bidaia-aldizkari batean egiten duela lan. Mota guztietako txango mundialak egiten ditu. (Benetan, toki guztietan egon da: Suitzatik Hego Karolinara). Bion amak lagunak direnez, gure amak asteburu-txango laburretan Maren zaintzea eskaini zion, ez zezan ezer galdu. Marenen gurasoak bananduta daude, eta bere aita oso urrun bizi da. Aitarekin geratzen da ama bidaia luzeago baterako joaten denean.

Asteburu batean, Marenek bere etxera gonbidatu ninduen mesedea itzultzeko. Bere amak pertsona bana gonbidatzeko baimena eman zigun. Nik Ashley gonbidatu nuen, eta Marenek Willow. Horrela hasi ginen pijama festak egiten! Harrezkero etxeak txandakatu ditugu, eta beti da abentura bat. Benetan, ezin dut irudikatu nire bizitza nire lagun pijamazaleak gabe!



Beno, itzul gaitezen asteburuak merkataritza-gunean igarotzea zergatik atsegin dudan azaltzera. Igandero herriko animalien babeslekuak aparkalekuan animaliak eskaintzen ditu adoptatzeko. Astero, etxe bat behar duten txakurrak eta katuak eramaten dituzte. Oso dibertigarria da animaliak laztantzea eta haiekin jolastea. Uste dut munduko gauzarik onena dela, txakur bat edukitzeaz aparte, eta egunen batean txakur bat edukitzeko asmoa dut. Zoritxarrez, oraindik ez ditut nire gurasoak konbentzitu, gogor saiatu naizen arren.

—Aizue, soineko honekin obsesionatuta dago –esan zigun Ashleyk, eta buelta batzuk eman zituen, maxisoineko more bat soinean zeramala–. Nirea izateko jaio zen, ezta?

Willowek prezioa begiratu zuen, eta zur eta lur geratu zen.

—Beno, pertsona aberats batena izateko jaio zela esango nuke! 310 euroko soinekoa da –esan zion–. Ziur ehun pixka bat erosi eta honen antzeko gauzaren bat egin dezakegula.

Willow oso trebea da eta sormen handia du. Badirudi edozer egiteko gauza dela brotxa batekin edo guraize-pare bat ematen badizkiozu, baita jostea ere.

Ashleyk ispiluan begiratu zuen bere isla, eta soinekoaren alboak laztandu zituen.

—Agian egiteko eskatuko dizut –esan zion–. Bloggerako argazki bat atera dezakegu, behintzat?

Nire telefonoa atera nuen argazkia egiteko, eta iragazki on bat aukeratu nuen koloreak are gehiago nabarmentzeko.

—Instagramera zaitut –esan nion.

Ashleyk Tumblr orrialde bat hasi berri zuen modari buruz, “Magstar” izenekoa. (Bere abizena Maggio da). Bere blogak jarraitzaile askotxo lortu zituen jada. Neure buruari galdetu nion ea zenbat “atsegin dut” eta birblogatze lortuko zituen argazki hark. Agian Ashleyk nire izena aipatuko zuen argazkia egin izanagatik. Hashtaga irudika nezakeen: *#laneykamerarenatzean*

Asper-asper eginda zegoela, Marenek hurbil zeukan apal batetik ilaje faltsuzko beroki deigarri bat atera zuen.



—Eta zer deritzozue honi? –esan zigun, ezpaineekin musu-keinu bat eginez (nik “selfie aurpegia” deitzen diot)–. Supermodelo bat izan ninteke ala zer?

Maren modelo-lanetan irudikatze hutsa pentsaezina zen. Ia beti janzten zuen uniforme bera: kirol-jertse txanodun bat, bakeroak eta kirol-kamisetaren bat. Egun hartan Cleveland Browns futbol amerikarreko taldearen kamiseta tiranteduna zeraman, eta oso barregarri geratzen zen berokiaren azpian.

—Beno, kito –esan nuen–. Maren kokoteraino dago, eta uste dut nahikoa arropa begiratu dugula gaurkoz. Txakurrak ikustera joan gaitezke orain, faborez? –Willowek baietz erantzun zuen buruaz gogo biziz, eta banekien Ashleyk ere joan nahiko zuela. Bera ere oso txakurzalea da, eta gainera, txakurtxo bat dauka. (Zorionekoa bera!). Orduan, Ashleyk arropak aldatu zuen, eta bere azken aurkikuntza dendan utzi ondoren, kanpora joan ginen txakurren adopzioa ikustera joateko.



—Eguzkia! –esan zuen Marenek txantxetan, begiak argi distiratsutik babestuz–. Ashleyk probagelan hainbeste denbora igaro duenez, ahaztu egin zait eguneko argia nolakoa den.

Ash Marenez gupidatu zen eta bere eguzkitako “maxibetaurrekoak” utzi zizkion.

—Tori –esan zion–. Nik baino gehiago behar dituzu.

Marenek oso itxura xelebrea zeukan Ashleyren betaurreko estilotsuekin eta kiroleko kamisetarekin jantzita, eta guztiok hasi ginen barreka berriro.

Azkenean ere aparkalekura iritsi ginen. Han, animaliatxoak eta jendea zuhaitz hostotsu batzuen azpian elkartuta zeuden. Kartel handi batek zera zioen: Valley Vieweko Animalien Adopzioa. Hamabost bat txakur kaiola biribil ikaragarri handi baten barruan jolasten eta batera eta bestera mugitzen ari ziren. Bihotza berehala urtu zitzaidan, babeslekuko txakurrak ikusten ditudan guztietan bezala.

—Begira! –esan zuen Willowek, labradore horail maitagarri bat seinalatuz–. Delaney, nire lagun min berria aurkezten dizut